



Zuri-gorritz jantzi dira eskualdeko txikienak

TOLOSALDEA ▶ San Fermin txiki eguna ospatu zuten atzo, bestiak beste, Tolosan eta Iruran

GAUR ▶ Suziriak, pintxo banaketa, haur jolasak, eta jaien amaiera egingo dituzte ▶ 4-5



Ezker-eskuin: Irurako gazteak San Fermin santuari abesten eta Iñaki Moyuaren zezenak Tolosako haurren atzetik. I. GARCIA/A. IMAZ

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Pultsulariek emaitza bikainak lortu dituzte

Teddy Martinez txapeldun, Euskadiko Absolutuan ▶ 2

ANOETA-ALKIZA ▶

Antzinako herribidea berreskuratu dute

Foru Aldundiarekin batera eginiko lana da ▶ 2

TOLOSA ▶

Oargi elkartearen mendi irteera

Tenako bailarara eta Picos de Europa ▶ 3

AMEZKETA ▶

Adostasuna lortzeko «prest» dago Kimu Berriak taldea

EAEri eta EALri «proposamena» zabaldu diete ▶ 6

LEITZA ▶

Abel Barriolak aurrez aurre izango du berriro Aimar Olaizola gaur, Nafarroako Lau t'erdiko finalean

Labrit pilotalekuan jokatuko dute partida; Aurrerako pilotariak ere Herri Artekoaren finalean ariko dira bertan ▶ 7



Barriola. A. CANELLADA/ARGAZKI PRESS

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Eskualdeko pultsulariek emaitza bikainak lortu dituzte

Euskadiko Txapelketa Absolutuan Teddy Martinez izan da txapelduna

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra Halterofilia taldeko pultsulariak bikain aritu dira azkeneko txapelketetan. Euskadiko Txapelketa lehen postuetan sailkatu ziren eta Teddy Martinez zizurkildarrak lortu zuen bakarka txapela. Gipuzkoako Teknika Eskolarra Txapelketa lehen postuak lortu zituzten maila ezberdinetan.

Ekainaren 30ean Euskadiko Banakako, Taldekako eta Federazioen arteko Halterofilia Txapelketa jokatu zuten Iruñean eta bertan, banakakoan, Teddy Martinez garaile atera zen. Noski, bere mailan ere, 94 kilokoan, lehen postua lortu zuen.

Beste pultsulariek emaitza hauek lortu zituzten: Iker Hernandez, lehenengoa 56 kilokoan; Ekaitz Kortajarena lehenengoa 62 kilokoan; Igor Sasiain bigarren eta Angel Martin hirugarren 69 kilokoan; eta Jon Tecedor bigarren 105 kilo baino gehiagoko mailan.

Taldeka Bizkaiak lortu zuen lehen postua eta Gipuzkoa izan zen bigarrena. Federazioen txapelketa lehen sailkatua Gipuzkoa izan zen.



Asier Gallego pultsularia lehiaketa batean. HITZA

Emaitza hauekin Espainako Absolutu Txapelketarako Danena-Olaederrako ondorengo pultsulariak sailkatu dira: Ekaitz Kortajarena, Igor Sasiain, Teddy Martinez eta Jon Tecedor. Ordezko moduan Iker Hernandez eta Angel Martin daude. Gijonen (Espainia, As-

turias) jokatu da txapelketa, hilaren 27tik 29ra.

Gipuzkoako Teknika Eskolarreko Txapelketari dagokionez, Intxaurre Pilotalekuan jokatu zen eta ondorengo emaitzak lortu zituzten Danena-Olaederrakoek: 1994 urtean jaiotakoetan, Adrian Sasiain (Jesusen

Bihotza Ikastola) izan zen lehen eta Kelyam Quintana (Jesusen Bihotza) bigarren; 1995 urtekoetan, Sufian Rochdi (Jesusen Bihotza Ikastola) lehen eta Unai Calvo (Jesusen Bihotza Ikastola) bigarren; 1996 urtekoetan, Asier Gallego (San Millan Herri Eskola) lehenengo, Isam Eloikili (Pedro Mari Otaño Ikastetxea) bigarren eta Igor Galludo (Pedro Mari Otaño Ikastetxea) hirugarren.

Martinez, nazioarte mailan

Teddy Martinezek hiru aste daramatza maila handiko lehiaketetan parte hartzen. Pragan hamargarren postua lortu zuen Junior Mailako Munduko Txapelketan. Veronako (Italia) Promozio CUP txapelketa Italia, Frantzia, Alemania, Polonia, Txekiar Errepublikak, Albania, Bulgaria eta Espainako selekzioek parte hartu zuten eta bertan Martinezek hugarren egin zuen. Gaur egun Espainako selekzioarekin kontzentrazioa egiten ari da Tenerifen (Espainia) hurrengo nazioarte mailako txapelketak prestatzen.

ZIZURKIL ▶

'Zizurkilen Barrena' beka antolatu du Udalak

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo emakume baserri-tarren beharrak jaso eta behar hauekin diagnosi bat egiteko Zizurkilgo Udalak *Zizurkilen Barrena* beka antolatu du. Lana euskaraz egingo da eta Udalak berak gomendatutako baserrietara joan eta bertako 18-80 urte bitarteko emakumei inkesta bat egingo die bekadunak.

Interesatuek LHIIko titulazioa edo baliokidea izan behar du gutxienez, EGA edo antzekoa, baserri mundua hurbiletik ezagutu, informatika ezagutzen eta elkarrizketak egiten esperientzia. Eskaera irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da eta bekadunen izena urriaren 21en antolatuko duen Azoka Berezian jakinaraziko du Udalak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramedi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ANOETA-ALKIZA ▶ ONDAREA

Bi udalerrien arteko antzinako herribidearen zati bat berreskuratu dute bi udalek eta Foru Aldundiak

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Alkizako ondare historikoa berreskuratzeko lanetan pausoak eman dituzte. Antzintatik hasi eta duela 49 urte arte bi herriak lotzen zituen komunikazio bide bakarra berreskuratzen ari baitira.

Aurreko legealdian Anoeta-Udalak bultzatu eta gauzatu zuen hiru entitate publikoen arteko elkarlanerako akordioa, hau da, Anoetako Udala bera, Alkizako Udala eta Foru Aldundiaren artekoa. Galdurik zegoen trazatua argitzearekin hasi dira eta zati garrantzitsu baten berreskuratzea egin da.

Duela 49 urte arte Anoetatik igarotzen den bide hori zen Alkizak bere bizitza garatzeko beharrezko zituen saldu edo

erositako materialak garraiatzeko erabiltzen zuena. Anoetatik igarotzen zen, bi herrien arteko komunikazio bide bakar hori, eta ondare historikoa den heinean, bi udalak berreskuratzeko ahalegina egin dute. Anoetatik hasi eta Alkizako Errekalde baserriainoko zatia berreskuratzeaz gain ibilbidea argitu da.

Anoetako eta Alkizako garapenaren historian zeresan garrantzitsua izan du, bertatik igarotzen baitziren Alkizako sortutako produktuak merkaturatzeko bai Tolosaruntz edota Donostiaruntz. Bestalde, esan daiteke Anoeta gunen garrantzitsua zela Alkizako biztanleen erostetarako gauzaterakoan.

Anoetako Udalak ibilbidea argitzeko lanei heldu zien. Ho-

HISTORIA

Anoetako perratzailea bide horretatik joaten zen Alkizako baserri lanetan erabiltzen zen ganadua perratzera

rrrela, Modestoenatik hasi, Kale Txikitik eta Osinzulora heldu baino lehen eskubira dagoen zubixkatik aurrera Alkizako Errekalde baserriainoko ibilbidea dago argituta. Foru Aldundiak, bere aldetik, Zentratetik Osintzulo bitarteko herri bidearen berreskurapena egin du eta honi gehitu behar zaio Alkizaruntz gidatzeko dagoen zubiaren ingurua egokitu dela. Aurrerantzean Anoetako

eta Alkizako udalek ekingo diote berreskuratzeko lanei Errekalde baserriaino eta bertatik Alkizako zatia Alkizako Udalak bere gain hartzen du.

Bide hau berreskuratzeko aukera ematen du Anoeta-Alkiza-Hernalde-Anoeta lotuko dituen egungo errepideez kanpo geldituko den ibilbide eroso bezain lasai bat burutzeko epe laburrean.

Herri bide honen historian arakatuz, Anoetako perratzailea bertatik joaten zen egunero Alkizako baserri lanetan erabiltzen zituzten ganadua perratzera. Bestalde, angarilen bidez garraiatzen zituzten bide horretatik gaixotutako gizon emakume edo haurrak sendaetxetara eramateko.

GIZARTEA ▶

Txosnek jaietan leku finkoa behar dutela eskatzen dute

Txosna batzordeak 400 sinadura bildu zituen sanjoanetan Inauterietan txosnak Euskal Herria plazan jartzearen alde

ERREDAKZIOA

Tolosako txosna batzordeak aurtengo sanjoanetako «oso balorazioa baikorra» egiten du, «bai jendearen parte-hartzea oso ona izan delako eta baita festaren gune bat gehiago izatea lortu dugulako ere. Hala, gune hori gune finko bihurtu behar dutela diote, «eta jai giroaren baitan egon behar dute».

Bestalde, esker bereziak eman nahi dizkiete zuzenean parte hartu duten guztiei, hau da, bertsolariei, trikitilarietara, DJ Fer-i, DJ Bull-i, Bonberenea txarangari, Mulanbori, dantzarietara eta afaltzera bertaratu ziren guztiei. Hala, sanjoanetan txosnak jartzen dituzten lehen aldia izanik, badakitela hobetzeko gauza asko dituztela azaldu dute, eta «hain zuzen, datoen urteetan erronka horiei eutsiko diegu eta txosnagunea gero eta gusturago egoteko txokoa bilakatzeko saiaturako gara. Jakin ezazue, horretarako ate guztiak zabalik izango dituzuela», adierazi dute.

Halaber, Inauterietan txosnak Euskal Herria plazan jartzearen alde sinatu zuten guztiak ere eskertu nahi dituzte txosnetako antolatzaileek, «400 tolosarren hitzak argi erakusten baitu txosnek toki finkoa behar dutela eta hauek jai giroaren barruan behar dutela egon. Toki egokiak asko esan nahi du, ez bakarrik etekin ekonomikoagatik baizik eta festaren parte izan nahi dugun heinean, toki egokiak herritarren parte-hartzea ahalbide-



Sanjoanetako trikibertsopoteoko une bat. HITZA

tzen duelako; dela haur, gazte eta helduak gerturatzea, dela festetan talde ezberdinek (txaranga, kalejira, karroza...) Txosnagunea euren ibilbidearen geldituunetzat hartzea». Horren «adibide argia» sanjoanetakoa dela diote.

Aurrera begira, eta Inauterietatik hasita hori dela erronka azaldu dute. Izan ere, aurten

amaitu da Udalarekin adostutako txandakatzeko sistema eta «aurrez esandako guztiak eta orain arte bildu ditugun 400 sinadurek argi erakusten dute bidea, beraz, hemendik aurrera Txosnagunea Euskal Herria plazan aldarrikatzen dugu».

Sanjoanetan txosnetan izan ziren guztiak eskertzen dituzte txosna batzordetik.

MENDIA ▶

Tenako bailarara eta Picos de Europara



Picos de Europako irudi bat. A. GONZALEZ

ERREDAKZIOA

Oargi mendi elkarreak hainbat irteera antolatu ditu uda honetarako. Horietan artean, uztailaren izango direnak, hau da, Tenako bailarara eta Picos de Europara.

Hilaren 20, 21 eta 22an Tenako bailarara egingo dute irteera. 20ean hara abiatuko dira; 21ean Pallas(2.974) edo Herrana arroila, eta 22an Pico

Biscua (2.064) edo Bitet arroila egingo dute. Aukera izango da bi egunetan mendia edo arroilen jaitsiera egiteko.

Bestalde, hilaren 27, 28, 29, 30 eta 31ean Picos de Europara joango dira. Torre de los Horcados Rojos (2.056) Pico Urriello (2.519), Peña Castil (2.442) eta Torre de la Pardina (2.596) igoko dute. Izena emateko 637 830380 zenbakira deitu beharko da.

AISIA ▶

Benidormera irteera antolatu dute

Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarreak oporraldia antolatu du Benidormen. Irailaren 29tik urriaren 13ra izango dira oporrak, 15 egun eta 14 gau, beraz. Irteera irailaren 28an, ostirala, izango da, 00:00etan San Frantziskotik. Bazkideek 455 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, 461 euro. Hilaren 9tik aurrera eman ahalgo da izena.

hilberria ▶

Bittor Sorondo Agirrezabalaga

JAUNA

Urak dakarrena
urak daroa
Urak emandakoa
lurrean gelditzen da

ESAIT

EUSKAL HERRIAN, 2007ko uztailaren 7an



hilberria ▶

Betiereko bidaia
hasi duzu Yemenen
baina betirako
geratzen zara hemen
Noiz emango diguzu zure
bidaia berri?

Zure lagunak



hilberria ▶

Bittor Sorondo Agirrezabalaga

JAUNA

ATZO hil zen, 62 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Anai-arrebak: Tere eta Jose Ramon, Sagrario eta Antton, Inmaculada eta Juan Jose, Alejandro, Joxe eta Mirari, Jesus Mari (†) eta Nekane; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoiitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA (Anoeta) parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Gregorio Ametzoy, 3-4.E oharra ▶ Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongada Beltategi dago, gaur larunbata eguerdikio 13:15ak arte.

IRURAN, 2007ko uztailaren 7an



urteurrena ▶

I.urteurrena

Miel Mari Arrospe Armendariz

Jauna

2006ko uztailaren 5ean hil zen, 48 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Haren emaztea: Maitere Munduate; semea: Joseba; gurasoak: Joxe eta Ramoni; ezkon ama: Martina Karrera (Jose Antonio Munduate-ren alarguna); anai-arrebak: Maite eta Iñigo; ezkon anai-arrebak: Fatima, Xaka eta Idoia; ilobak: Maddi eta Ekhi; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoiitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, TOLOSako SAN FRANTZISKO parroki elizan, egingo den urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

ALEGIAN, 2007ko uztailaren 7an



HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAKO GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AMEZKETA ▶ POLITIKA

Kimu Berriak: «Prest gaude oinarrizko adostasuna lortzeko»

EAE-ANVri eta EAL taldeari «akordio estrategikorako» proposamen instituzionala zuzendu diete



Asteazkenean plenoa egin zuten Amezketa udaldegian, EAE-ANV, Kimu Berriak eta EAL bilduz. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Joan den asteazkenean Amezketa plenoa egin zuten hiru taldeek eta herritarren parte-hartzearekin. Besteen artean, Alkateak EAE-ANVri eta EAL taldeari akordio estrategikorako proposamen instituzionala zuzendu zieten.

«Harremanak izan ditugu hiru udaltaldeon artean, baina, dirudenez, oso zail zaigu elkar ulertzea. Tamalgarria benetan, izan ere, elkar ezin ulertu honen biziki oztopatzen du elkarlan iraunkorra eta arduren partekatzea», dio Jesus Ifurrita al-

kate berriak. «Halere, gu prest gaude oinarrizko adostasuna lortzeko ahaleginak egiteko, eta gaurko proposamen instituzionala horren lekuko besterik ez da».

Hau izan da Kimu Berriak talde independenteak eginiko lan-proposamena: «Elkarlanaren alde eta arduren partekatzearen alde gaude, baina harreman pertsonaletan zein erakundearen artekoetan egin den bezala, elkartzak eta partekatzeak edukietan eta programan oinarritu behar du, eta ez hitzetan zein balizko borondate hutsean».

Adierazitako helburuetara iritsi amoz, «prest gaude ondoren zehazten diren pausoak emateko: plenoan dekretuz hautatuko dugun Gobernu Batzordea behin behinekotasunez hautatzeko, gure arteko akordioa landu eta adostu bitartean ere Udalak funtzionatu egin behar baitu».

Bestetik, «prest gaude, udaltalde guztiok programak idatzirik ditugunez, uztailean eta abuztuan egin behar diren bilerak eginez, batzordea edota zinegotzien artean, ezker eta abertzale ikuspegitik Amezketa-entzat hoberentzat jotzen dugun programa eta funtzionamendu sistema lantzeko eta adosteko, negoziazio orotan bezala denok malgutasunez jokatzu».

Bukatzeko, Kimu Berriak «prest» agertu da «botere nahiaren sasi uestek eta bazterkeriaren mamuak saihestuz, irailan, programa-funtzionamendua adostu dutenen artean, berehala Gobernu Batzordeko eta Batzordeetako Arduradunak izendatzeko eta ardurak banatzeko».

Ohiko Batzar edo Plenoak, hemendik aurrera, hilabetero

azkeneko ostegunean egingo dira, 20:30ean. Beraz, datorrena hilaren 26an izango da.

Batzordeen osaketa

Batzordeen osaketari buruz aipatzen da lau batzorde osatuko asmoa dela eta oraingoz hiru jadanik nahiko zehaztuak daudela. Batzordeen helburua talde bakoitzeko kide batez osatua egotea da eta adostasuna lortzeko gutxiarik bi kideen aldeko jarrera beharko du proposamen batek aurrera egiteko. Batzordeak irekiak izatea da helburua eta hilaren azken aurreko astean bilduko dira.

Kultura batzordeak hiru lantalde desberdin izango ditu, festa lantaldea, eskolako gaiez arduratzen dena eta elkarteekin hitz egiteko lantaldea.

Gizarte ongizate batzordeari dagokionez, batzordeko kideak aurkeztu zituzten, eta lehen bileran landutako gaien berri eman zuten: lokalaren kasuan M. Rosariok aipatu die batzordeko ez duela jarraitzeko asmorik eta Ana Jesus Zabalak Udalak diru laguntza emateari dagokionez, asmoa zein den jakin nahi du. Amezketa Udalak «dituen lokalak eta hauen erabilera, lokal hau barne, orokorrean landuko du batzorde honek». Igerilekuari dagokionez, «legezko oztopoak aurkitu ditugunez, aurreko jartzeko zailtasunak daude baina gaia ez da erabat baztertuko eta datorren urterako aukera egokienak aztertuko ditugu zerbiztu hori eskaintzeko».

Hirigintzari dagokionez

Hirigintza batzordea osatzeko erabaki hauek hartu zirela aipatzen da: arkitektoaren egoeraren berri eman zuten eta «oraingoz Gaizka Perosterekin jarraitzeko asmoa» dela esaten da, herriko arauak berak hobekien ezagutzen dituelako.

Udaldegiko obraren balantzea egin zen eta oraingoz Tririti azken ziurtagiriaren ordainketa ez egiteko dauden arazoak erabat konpondu bitartean. Beartzaneko burdin sarea konpontzeko agindua ere ematea onartu zen.

Larrait-Bideko etxebizitzaren espedienterako falta diren txostenak eta oraindik eskatu gabe zeudenak eskatzea erabaki zuten. Etxebizitza tasatuei buruz ere, aztertu behar direla erabaki dute. Industriaguneak ere aztertu behar direla adierazten da.

Hirigintzako gai guztiak «txosten teknikoak izan behar dutela derrigorrezkotzat jotzen da», ondoren batzordeak erabakiak hartu ahal izateko.

ANOETA ▶

Udal dantza eta pilota eskoletako matrikulak

ERREDAKZIOA

Anoetako Udal dantza eta pilota eskoletako matrikulazioa zabalik dago hilaren 13ra arte, eta 09:00etatik 13:00etara bitarte. Honetarako udaldegian eman daiteke izena.

Euskal dantzak 3 urtetik aurrerakoentzat da, eta taldeak adina eta mailaren arabera egingo dira, ordutegia irailan zehaztuz. Pilota, berri, 8 urtetik aurrerakoentzat izango da eta mailaka banatuko dute ordutegia: benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak, hain zuzen ere. Infantilek eta kadeteek ostiralean izango dute saioa 17:15etik 18:15era, eta besteek, astelehenean eta asteazkenean, 17:15etik 19:15era bitarte, bi taldetan banatuta. Klase guztiak irailaren 24an hasiko dira.

Izena ematean kontu korronteko zenbakiak aurkeztu behar dira. Bestalde, prezio bereziak ere egingo dituzte, familiaren egoeraren arabera (familia ugaria, gazte txartela, ekonomikoki gutxiago duten anoetarrei...).

ALBIZTUR ▶

KZgunean hitzaldia, seme-alabei buruz

Albizturko KZgunean etzi ikastaro bat izango da. *Babestu zure semea* izena du uztaileko lehen ikastaroa, eta 11:00etan hasiko da, 12:00ak arte. Hilabetean zehar beste bi ikastaro antolatuko dituzte.

ANOETA ▶

Alkartasunak etzitik aurrera udako ordutegia

Anoetako Alkartasuna biltokian etzitik aurrera udako ordutegia jarriko dute martxan. Beraz, beti bezala 17:00etan ireki beharrean, 17:30etik 21:00etara egongo da zabalik. Bestalde, podologoaren bisita izango dute hilaren 11n, asteazkena, 14:45ean.

hitza

Praktikak HITZAn irailetik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazio lizentziatuetako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
 Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA
 tolosaldean@tolosaldekohitza.info
(uztailearen 15a baino lehen)

LEITZA ▶ PILOTA

Barriola eta Olaizola berrero aurrez aurre Labriteko finalean

Gaur jokatuko dute Nafarroako Lau t'erdiko finala, jai giroak Iruñeko bazter guztiak alaitzen dituen egun berean



Aimar Olaizola eta Abel Barriola azaroan, Tolosako Beotibar pilotalekuan. M. ROSA

NAIARA GARZIA

Goizetik hasita gaur leitzarrik Labriten aritzeak diren arren, gaueko 22:15ean iritsiko da eguneko partidarik handiena, Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketari dagokionez, Abel Barriola eta Aimar Olaizolaren artekoa, alegia.

San Fermin egunean jokatzeak xarma berezia ematen dio norgehiagokari honi. «Pilotan urteko egun politenetakoa da. Giro berezia dago; aurten, baina, gauean jokatzeak xarma apur bat kentzen dio. Niri gehiago gustatzen zait goizez, antzinako finalen ordutegia errespetatzen zuen jaialdi bakarra delako», izan ere, 22:15ean jokatuko dute norgehiagoka, telebistatik bota behar dutelako. Sanferminetako egun handia da gaurkoa, jai giroak bazter guztiak alaitzen dituen horietakoa. «Beste tankera bateko jaialdia da. Ikusle gehienak berdin jantzita doaz, askorentzat jai eguna da, harmailak lepo betetzen dira...». Baina aurtengo Nafarroako Lau t'erdiko finalak xarma are bereziagoa du, finalistak Buruz Buruko Txapelketan ere lehiatu baitira.

Hiru aste besterik ez dira

igaro leitzarrik eta goizueta-rrak finala jokatu zutenetik. Askorentzat errebantxa moduko bat izan daitekeen arren, bai bataik bai besteak ere material hautaketaren ondoren garrantzia kendu zioten honi. Barriolarentzat buruz buruko finaleko presioa edo gaurko partidakoa ezberdinak dira. «Ez nuke lasaiaio jokatzen dugula esan nahi, baina argi dago ez dela txapelketa bateko final bat bezalakoa. Halere, biok irabazi nahi dugu, egun polita da, eta biok emango dugu gure onena».

Material hautaketa asteazkenean egin zuten eta bi pilotariek Punpa markako pilotak

aukeratu zituzten. Barriolak 105, 6 eta 104, 4 gramotakoak eta Olaizola II.ak, 104, 3 gramotakoak biak.

Nafarroakoan txapel bana

Abel Barriola eta Aimar Olaizolaren ibilbidea ezberdina izan den arren, Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketari dagokionez bi pilotariak txapel kopuru berearekin jokatuko dute gaurko finala. Barriolak 2002. urtean irabazi zuen txapela, buruz burukoan txapela irabazi zuen urte berean. Olaizola II.ak, aldiz, 2005. urtean lortu zuen. Gaur bietatik batek bigarrena eskuratuko du.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Begiradak. Atal berri honetan, gai zehatzei buruzko informazioa bilatzeko aukera erraza izango duzu: besteak beste, 2007ko Udaltzaletan hauteskundeetan aukeratutako alkate berriei egindako elkarrizketak, eskualdeko musika taldeak... ▶

LEITZA ▶ PILOTA



Gaur Labriten finala jokatuko duten 8 pilotariak. HITZA

Herri Artekoaren finala gaur, 16:30ean, Labriten

Aurrerako pilotariak Uharteren aurka lehiatuko dira, lau maila ezberdinetan

N. GARZIA

Gaurkoan leitzarrentzat egun handia izanen da Iruñeko Labrit pilotalekuan. Barriola eta Bengoetxea VI.ak jokatuko dituzten partidez gain, Aurrera Pilota Eskolako pilotariek ere Herri Arteko Txapelketa jokatuko baitute.

16:30ean hasiko da Nafarroako Herri Arteko Txapelketa finala. Leitza Uharteren aurka ariko da eta leitzarrek gerriko urdina jantziko dute. Osozara 4 izanen dira jokatuko dituzten norgehiagokak, 4 maila ezberdinetan lehiatuko baitira. Hasi berriak izanen dira lehenengoak, Mikel Sagastibeltza eta Anartz Olano. Hauen atzetik Joxerra Aldaregia eta Jon Jaunarena haur-kategorian lehiatuko dira. Gazteetan Oian Alduntzin eta Aitor Goikoetxeak jokatuko dute. Nagusiak azkenekoak izanen dira: Mikel Olazabal eta Mikel Iriarte.

Herri Arteko Txapelketa, Aurrerako arduradunek azal-

du duten bezala, «txapelketa garrantzitsua» da, eta horregatik 2 autobus antolatu dituzte pilotariei animoak emateko. Hasiara batean bakarrik hartzeko asmoa zuten arren, 85 pertsonen izena eman dutenez, bi antolatu dituzte. Autobusak 15:00etan abiatuko dira Amazabal pilotalekutik. Irabazi ala galdu, gaeuan afora egingen dute Mendigorri elkartean eta horretarako ere beste 85 pertsonen izena eman dute.

Bengoetxea VI.a

Oinatz Bengoetxearen txanda goizean izanen da, 11:30an, Labriten eta Otxandorena pilotariarekin jokatuko du (eta ez Belokirekin) Titin III.a eta Zubietaren aurka, Epelen binakako sanferminetako txapelketako finalaurrekoetan.

Otxandorenak Beloki pilotaria ordezkatuko du, medikuek gerrialdeko lesio batengatik 20 egunetako baja gomendatu baitiote.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Emakume euskalduna behar da umea eta eteko lanak egiteko. Interesatuak: 629 54 02 11.

Zaintzailea. Emakume euskalduna behar da eteko lanak egin eta 2 ume zaintzeko goizetan Ibarren. 943 67 15 09.

Sukaldaria. Iturri-goxo jatebean sukaldari laguntzailea behar dugu. 943 69 12 10.

GALDUTAKOAK

Eskumuturrekoa. Leaburun eskumuturreko bat galdu da. 608 39 54 06.

SALGAI

Etxebizitza. Amezketan 60 mko etxebizitza saltzen dan bi trastelekurekin. Bizitzera sartzeko moduan dago. Deitu 660 39 50 75 telefono zenbakira, 17:00etatik aurrera.

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisu Bizkaia kalean, guztiz eraberrtua (Sputnik dorrean), 44.500.000.
Salgai (Tolosa). Pisu "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa). Pisu Araba etorbidean.
Salgai.
Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian.
Salgai (Ibarra). Lokala Euskal Herria kalean.
Alokatzeko (Salou).
Apartamentua, 2 logela, 7 ohe, aire egokitua eta pisuzina. Hondartzaren ondoan.
Alokatzeko (Tolosa).
Pisu San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak, Araba etorbidean irekia eta lurren eta San Frantziskon ibia.
Alokatzeko.
Pabiloi industriala, Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Lekunberrira egun osorako irteera antolatu du Gazte Topaguneak: zaldi ibilaldia eta pizsina. Prezioa: 15 euro. Irteera 9:00etan Trianguloko bus geltokitik. Arropa erosoa, bazkaria, bainujantzia, toalla, eguzki krema... eramatea gomendatzen dute.

Leitza. Arkupeak jubilatutako elkarrekin hainbat irteera antolatu ditu uztailaren: 23an eta 24an Lourdesera, 26an Aralarra Aiton-amonon Egutera (bazkaria eta dantzaldia) eta 28tik abuztuaren 1era Pirinioetara. Izen-ematea, elkartean.

Tolosa. Alde Zaharreko sanferminak Plaza Berrian: 12:00etan buruhandiak; hegaluze dastaketa 15:00ak arte; 18:00etan haur jolasak eta 20:30ean *Pobre de mi* abestuko dute.

Tolosa. Lokarri mugimenduak sinadurak bilduko ditu *ETaren borxakeria bukatzearen eta elkarrizketaren alde* 11:00etatik 13:00etara Triangulon jarriko duen furgonetan.

Tolosa. Hilaren 15ean 10:30ean VII. Santamaña Igoera izango da, 7 km korrika, Santamaña elkarrekin eta Asteasuko Udalak antolatuta. Izen-ematea, ordubetik lehenaago plazan edo 943 696896 edo 943 693400 telefonoetan.

Tolosa. EGAKo ikastaro trinkoa egiteko aukera izango da irailean goizez edo arratsaldez Aitzol Udak Euskaltegian. Izen-ematea hilaren 12a baino lehen 943 651006 telefono zenbakian.

Tolosa. Asteazken eta ostegunetan buzeatzen doan erakutsiko diete Usabalen 11 urte gorakoei 18:30ean. UDA kanpainaren barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
Tolosa. Ollarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lagun arteko apustua

ANOETA ▶ Joakin Garmendia eta Iñigo Iturrioz anoetarrek korrikan, aizkoran eta segan egindako norgehiagokan berdindu egin zuten



Apustulariak, laguntzaileak eta epaileak norgehiagoka bukatu eta gero ateratako argazkian. HITZA



Joakin Garmendia segaren saioaren une batean. HITZA

ERREDAKZIOA

Herri kiroleterako afizioa dago Anoetan eta horren erakusgarri dira herriko Joakin Garmendia eta Iñigo Iturrioz. Ahal dutenero saio bat eskaintzen diote herri kirolak atsegin dituenari. Hala, aurreko igandean apustua egin zuten. 1.000 euro zeuden jokoan. Kilometro bat korrikan, bi kanaerdiko aizkoran eta segarekin 100 metro ebaki behar zituzten.

Baina ezohiko apustua izan zen, inork ez baitzuen irabazi. Segako saioan bat besteari ari ziren begira lana batera bukatzeko. Apustua, azken batean, aitzakia zen. Apustua baino gehiago erakustaldia izan zen.

Iñigo Iturriozek, gazteak, aurrea hartu zuen korrikan. Joakin Garmendiak, nagusiak, abantaila murriztu ez ezik aurrea hartu zion gazteari aizkoran. Segaren unean batera amaitu zuten. Eta denak gustura, bai apustulariak, bai saioa ikustera joan ziren 50 lagun inguru ere. Ondoren, Garmendia, Iturrioz, bakoitzaren laguntzaileak eta epailek egunari amaiera eman zioten Hernialdeko Ostatuan bazkalduz.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Maidera eta Gorka. Zorte on zuen abentura berri honetan eta ondo pasa zuen ezkontza egunean!! Muturdiñak.



ZORIONAK

Josune eta Iker. Guraso eta familia guztiairen partetik. Ondo pasa zuen ezkontza egunean.



ZORIONAK!

Gaur emango diegu jarraipena ekainaren 23an hasitako gure sanferminei. Muturdiñak.